

IGE BATEN DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK

IGE baten ekonomia, diru-sarrera nagusiei dagokienez, kuota eta dirulaguntzetan oinarritzen da batik bat; eta ikasleentzako eskolaz kanpoko jarduerak eta familientzako prestakuntza-jarduerak izaten dira, bestalde, gastu garrantzitsuenak.

DIRU-SARRERAK

DIRULAGUNTZAK

Erakundeek IGEaren jardunbiderako egin ditzaketan ekarpenak dira. Atal horretan hainbat dirulaguntza hartzen dira kontuan:

·**Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren urteroko dirulaguntza.** Ikasleentzat edo familientzat egiten diren jarduketak diruz laguntzen dira horren bidez. Urte naturala dute epe eta emandako zenbatekoa justifikatu behar da soilik.

·**Udalen dirulaguntzak.** Udal bakoitzak bere deialdi propioa egiten du.

·**Osasun Sailaren dirulaguntzak eskola-bideetarako eta jolastokietarako.** Eskolara oinez joatea eta jolastokiak hezkidetzarako gune bihurtzea sustatzen duten proiektuak. Ikasturte bakoitzeko izan ohi dira.

·**Eskola-kirolerako dirulaguntzak.** Bizkaiko Foru Aldundiaren eskola-kiroleko programan parte hartzeko. Ikasturte bakoitzeko izan ohi dira.

Dirulaguntza horiek data finkoak izaten dituzte izapidetzeko, eta ematen den zenbatekoa baremoen arabera zenbatetsi ohi da. Informazio guztia jaso dezakezue hemen:

<https://www.ehige.eus/eu/bige-dirulaguntzak/>

KUOTAK

Ikasleen gurasoek eta tutoreek elkarteko kide izateko borondatez ordaintzen dituzten diru-kopuruak dira. Azpimarratu nahi dugu borondatezkoak direlako hori, hain zuzen ere, norberak erabakitzen baitu, askatasunez, IGE bateko kide izatea, eta ezein guraso ezin baita horretara behartu.

IGE bateko kide izateak zilegitu egiten du eraginpeko pertsona elkarteak kideentzat soil-soilik ezarritako onurez baliatzea.

Zuzendaritza Batzordeak proposatzen du kuota, eta akordioa Batzarrerera eramaten du, han onar dadin.

Familia bakoitzeko (kuota bakarra) edo ikastetxean dituzten seme-alaben kopuruaren araberakoak izan daitezke kuotak.

BESTE DIRU-SARRERAK

Ezohiko diru-sarrerak dira, batzuetan enpresek, erakundeek edo partikularrek eskuzabaltasunez ematen dituztenak. Normalean, halako diru-sarrerak loteria salduz lortutako dohaintzekin eta tokian tokiko enpresen (bankuen, supermerkatuen) ekarpenekin lortu ohi dira, eta jaialdiak bezalako jarduera puntualak finantziatzeko baliatu ari dira, besteak beste.

GASTUAK

IGE baten gastuak honako hauek izan ohi dira: familientzako prestakuntza-jarduerak, eskolaz kanpoko jarduerak, kultura-asteak, ikastetxeari jarduketa osagarrietarako, kudeaketa-gastuak, BIGE Gurasoen Elkarteko bazkide-kuota, etab.

Faktura edota ordainagiri batekin frogatu behar dira gastu guztiak.

GOGOAN HARTU BESTE GAUZA BATZUK

·Ikasturte bakoitzaren hasieran **diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua egin behar da, baita aurreko ikasturteko diru-sarrera eta gastuen balantzea** ere, Batzar Nagusian aurkeztu eta onetsi dadin.

·Irabazi-asmorik gabeko erakundea da elkartea. Horrek esan nahi du **bazkideek ezin dituztela, inoiz, IGEaren soberakinak elkarren artean banatu**. Baina honek ez du esan nahi eta, gainera, ez da batere komenigarria izaten, IGEak bere kontuetan zero euroekin amaitu behar duela ikasturtea. Bere urteko aurrekontuaren **% 10etik % 20ra bitarteko «maniobra-funts» bat edukitzen saiatu behar du IGEak.**

·IGEaren **banku-kontuak «erkidetuak»** izan behar dute. Horrek esan nahi gutxienez Zuzendaritza Batzordeko bi kideren (normalean, presidentearen eta diruzainaren) sinadura beharko dituztela banku-eragiketek. Ez da inola ere ez nahikoa izango sinadura bakar batekin.

•**Jarduketa bakoitzaren aurrekontuan**, kudeaketa-gastua kontuan hartu behar da; beraz, komenigarria izaten da jardueraren gastuari % 5-10 gehitzea.

•**Kontu-liburua**. Jarduketa ekonomiko guztiak «kontu-liburua» delakoan jaso behar dira. Ez du zertan liburu profesionala izan, baina ezinbestean ahalbidetu behar du entitatearen benetako ondarea, emaitza eta finantza-egoera ikustea, baita entitateak zer jarduera egin dituen ere. Excel-orri batean egin liteke.